

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2013KO OTSAILAREN 1EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI
DAGOKION AKTA**

Errenteriako udaletxean, 2013ko otsailaren 1eko goizeko 08:10ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis M^a Diez Gabilondo
- Iruñe Balenciaga Arrese
- Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi
- Jon Txasko Orgilles. (Guztiak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Miren Alazne Korta Zulaikak (O.E. BILDU).

Bertan dago eta egintza fedatu du Begoña Bueno Barranco idazkariordeak.

1. Gobernu Batzarrak 2012ko abenduaren 14an eginiko ezohiko eta presazko aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2012ko abenduaren 14an eginiko ezohiko eta presazko bilkurari dagokion akta irakurri ondoren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

Onartzea 2012ko abenduaren 14an eginiko ezohiko eta presazko bilkurari dagokion akta.

2. Diruzain lanpostua betetzeko ohiko lehiaketa arautuko duten oinarri bereziak onartzeko proposamena, estatu izaerako gaitasuna duten funtzionarioentzat gordetakoa.

Indarrean dagoen langileen plantilan bete gabe dago estatu izaerako gaikuntza duen funtzionarioei gordetako Diruzain lanpostua.

Ohiko lehiaketa hauek urtean behin izaten dira, eta Udalak lanpostu bakoitzeko lehiaketa arautuko duten oinarri zehatzak onartu behar dituzenez.

Kontutan izanik Langileria Batzordea ados dagoela proposaturiko oinarriekin.

Jakinaren gainean egonik, Alkatetzak 2011ko ekainaren 27ko Dekretuan erabakitako eskuordetzen baitan, erabaki hau hartzea Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena dela.

Giza baliabideko ordezkariaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historiko honetan deituko duen ohiko lehiaketa bateratua arautuko duten oinarri zehatzak, hain zuzen ere udal honetako Diruzain lanpostua behin betiko izaeraz betetzeko oinarriak, estatu izaerako gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako eta espedientean jasota daudenak.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki honen hitzez hitzeko egiaztatigiria bidaltzea, baita espediente hau osatzen duen I. eraskina ere, hain zuzen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren 7. atalak ezarritakoari jarraiki, Lurralde Historiko honetako ohiko lehiaketa hauek deitzeko ahaldua den Erakundea baita.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 08:15 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.